PUNTUAZIOA LANTZEKO: ZUZENAK DIRA ESALDI HAUEK?

1. Lagunak, lehengusuak, auzokoak, jai ederrean bildu ginen ezkontza egunean

2. Aizu Mikel, zergatik esan duzu hori?

3. Bart zure ondoan, oso gauza bereziak sentitu nituen

4. Aipatzen duzun kontu horri nik ez nioke inolako oztoporik jarriko, beti ere interesatuak informaturik baleude

5. Esaiozu berogailua pizteko, lehendabizi ixteko giltza nola dagoen begiratu behar duela

6. Den-denok, planeta honetan bizi garenok, oinarri beretik gatoz

7. Irain askok eta askok, mundu honetan "baserritar" delakoa dute abiapuntu

8. Izan ere, baserritarrarekin identifikatu da luzaro euskalduna, Erromantizismoaren garaietatik

9. "Ez kritika txarrik onartu, kritika onik egingo ez lizukeenari" (Lichtenberg filosofoa)

10. Baina batzuetan, korapilatzen da egoera, eta liskarra larriagoa bihurtzen da

11. Ez dute begiek ikusten, buruak ikusten du

12. Uharte Arakilgo Mikel Uarte andreak azaldu zion ohitura hau Alustizari orain dela berrogeita hamarren bat urte

13. Festa hauek tristeak iruditzen zaizkie, edota gizarte kontsumista baten euskarri

14. Bada, duela oso gutxi, zahar-egoitza batera joan nintzen lagun batekin, izeba bisitatzera

15. Honakoa zioen, haren hitz politiko erradikalak ezabatuak izan direla

16. Hitzek, esaten edo idazten diren hitz guztiek lan egiten dute

17. Aizu, Jose Mari oraingoan kontraesan bat harrapatu dizut

18. Barre egin genuen biok, baina, segituan isildu ginen

19. Behi gehienak, etzanda eguzkitan hausnarrean ari ziren, indolentziaz

20. Amaren kontserba gozoak, Getariako txakolina, arrebak herritik ekarri zuena, Salamancako saltxitxoia, gourmet dendan nik erositakoa... hori guztia paratu genuen mantelaren gainean

LIVEWORKSHEETS